

■ Floridan emakumezko bat exekutatu dute aulki elektrikoan

JUDY BUENOANO 54 urteko emakumezkoa exekutatu zuten atzo aulki elektrikoan, Florida estatuan. 1976an heriotza zigorra berriro indarrean jarri zenetik lehen aldia da emakume bat exekutatzen dutena aulki elektrikoan. Buenoanori heriotza zigorra ezarri zioten 1985ean, seme ezindu fisikoa pozoitu zuelako, haren aseguru kobratzeko. Goizeko 07:13etan (arratsaldeko 14:13ak Euskal Herrian) ofizialki hiltzat jo zuten Buenoano. X

■ Nino Konis Santana erresistentziako komandantea hil da

INDONESIAREN okupazioaren aurka borrokan ari den Ekialdeko Timorren Askapenerako Indar Armatuetakomandante Nino Konis Santana hil zen hilaren 11n, atzo jakinarazi zuten. Taur Matan Ruak gerrillaren Batzorde Nagusiko buruak komunikatu batean esan zuen Konis Santana altura handi batetik erori zela mendian, eta buruan kolpe handia hartu zuela. Matan Ruak izango da ziurrenik erakunde armatuko hurrengo komandantea. X

KANPUTXEA

■ Norodom Ranaridh itzuli egin da erbestetik

NORODOM RANARIDH lehen ministro ohiak bederatzi hilabete egin ditu exiliatuta. Iazko uztailaren 5ean Hun Senek eman zuen estatu kolpeak boteretik kendu zuen Ranaridh. Hun Senek Ranaridhi leporatu zion Khmer Gorriekin aliatu izana bera boteretik baztertzeko. Ranaridhi 35 urteko kartzela zigorra ezarri zioten orain gutxi Khmer Gorriekin konspiratzeagatik, baina Norodom Sinahuk erregeak amnistia eman zion. X

Boris Jeltsin Errusiako lehendakaria atzo, Kofi Annan Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusiaren ondoan. Irak eta Kosovoko misioen berri emateko joan zen Annan Moskura. JURI KADOBNOV / EPA

Boris Jeltsin ez da Errusiako hurrengo Lehendakaritza bozketetara aurkeztuko

Hala jakinarazi zuen atzo, eta ezustea sortu, kontrakoa zabaldu baita azkenaldion

Egun hauek oso nahasiak gertatzen ari dira Errusiako giro politikoan. Azkeneko ezustekoa Boris Jeltsin lehendakariak eman zuen atzo, bi urte barruko, 2000. urteko, Lehendakaritza hauteskundeetara ez dela aurkeztuko jakinarazi zuenean. Halaber, Viktor Txernomirdin aurkeztea berak erabaki duela azpimarratu zuen.

Agentziak / Mosku

BORIS JELTSIN Errusiako lehendakariak erabaki kontrajarririk hartzea, egun batean gauza bat esan eta hurrengoan atzera botatzea, ez da berria, baina azken egunotan hartu duen erabaki andanak zur eta lur utzi ditu errusiarrak.

Hasteko, atzo zortzi Gobernu osoa kargutik bota zuen, baita Viktor Txernomirdin 1992tik lehen ministro zena eta bere konfiantzazko pertsonaere. Sergei Kirienko 35 urteko «teknokrata

gaztea» izendatu zuen jarduneko lehen ministro, eta joan den ostiralean haren hautagaitza proposatu zion Dumari (Legebiltzarra) hurrengo Gobernuoko lehen ministro izateko. Gainera, Kirienko ez bazuten lehen ministro aukeratzen Duma desegingo zuela mehatxatu zien legebiltzarkideei.

Larunbatean, berriz, Viktor Txernomirdin lehen ministro ohiak 2000.eko Lehendakaritza hauteskundeetarako hautagaitza aurkeztuko duela iragarri zuen.

Jeltsinek Gobernuak bertan behera utzi zuenean azaldu zuen 2000.eko hauteskundeak prestatzen hasteko agindua eman ziola Txernomirdini. Hala ere, lehendakariaren azalpen horrek ez zutela sinesgarritasun handirik agertu zuten ia komunikabide guztiek, eta nabarmendu zuten berari itzal egiten ziolako kendu zuela Txernomirdin boteretik. Ildo horretatik, Txernomirdin «estatu kolpe saioa» prestatzen ari zela ere zabaldu zen.

Lehen ministro ohiak bozketetara aurkeztuko dela agertu zuenean, ez zela «Jeltsinen hautagaia» esan zuen. Ondorioz, bien arteko borroka handia izango zela pentsatu zen.

Gainera, egun horretan bertan, Kremlim Jeltsin berriro lehendakari izan zedin plan bat prestatzen ari zela jakin zen.

Atzo, ordea, zurrumurru horiek guztiak bertan behera utzi zituen Errusiako lehendakaria berak, hirugarren agintealdirako ez dela aurkeztuko adierazi zuenean, eta, zeharka bazen ere, Txernomirdinen hautagaitza babesteko prest agertu zenean.

Gainera, Txernomirdin Lehendakaritza aurkeztea berak hartutako erabakia izan dela azpimarratu zuen Jeltsinek. «Erabakia berak hartu zuela esan zuen Txernomirdinek, baina ez zen hala izan nik neuk hartu bainuen», esan zuen, lehen ministro ohiaren larunbateko adierazpenak gezurtatuz.

Lehen ministro ohiaren hitzak baliogabetuz, azken batean, agintearen jabe oraindik bera dela argi eta garbi utzi nahi izan zuen Boris Jeltsin Errusiako lehendakariak. X

Komunistek aurrea hartu dute Ukrainako Legebiltzarrerako hauteskundeetan

■ Herritarren % 69,8k eman zuten botoa herenegungo hauteskundeetan

Agentziak / Kiev

ALDERDI KOMUNISTAK aurrea hartu zien atzo gainontzeko alderdi politikoei, Ukrainako Legebiltzarra osatzeko herenegun egin ziren hauteskundeetan. Komunistek botoen % 26 lortu zituzten, Hauteskunde Batzorde Zentralak (HBZ) emaitza guztiak

eman aurretik aitortu zuenez. Herenegun hautes-lekuen aurrean herritarrei egindako galdeketa-oren ondorioa da emaitza, eta Ruj alderdi nazionalista izan zen bigarren bozkatuena (botoen % 11), galdeketa horren arabera. Alderdi Komunistako buruek esan zuten botoen % 33tik % 35era bitarte lortu zituztela.

Ukrainako Legebiltzarreko

450 diputatuen erdiak aukeratu ziren herenegun egin zen bozketan. Gainontzeko diputatuak barruti maioritarioetan aukeratu ziren.

Hauteskunde horietan boto eskubidea zuten herritarren % 69,9 inguratu ziren hauteskontzietara. Aurreko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, berriz, % 74,8k eman zuten botoa. X



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak diruz lagundutako egunkaria